

JauJa deituriko lokalean hainbat ekintza desberdin landuko dira egunerokoan zehar. Jolas gune bat eratuko dugu, eta bertan, haur eta gazteek denbora igaro ahal izango dute txoko ezberdinetan aritzen diren bitartean. Alde batetik, jolas libre sustatuko da, non honek pisu handiena eta garrantzitsuena izanez. Horretarako, jolas gune edota txokoak esleituko dira lokalean zehar. Beraz, hezitzaile eta monitore espezializatuak izango ditugu (kontuan izanik gu geu ere begiraleak izango garela). Jolas libre hau sustatzeko, koltxonetak izango ditugu. Horrela, umeak bertan saltoka eta jolasean aritu ahal izango dira. Koltxoneta mota ezberdinak erabiliko ditugu, adibidez, salto egiteko koltxonetak (elastikoak). Guzti honekin batera, haurrek libre sentituko dira eta autonomia lantzeko lagungarria izango zaie, gehienbat beraien lehen urteetan behin beraien kabuz modu libreago batean mugitzean, adibidez, 3-4 urte bitartean oso lagungarria izan daiteke.

Bestetik, ekintza ugariak lantzeko eta ezagutzeko aukera egongo da. Horrez gain, haurtzaindegi eremu bat ere esleituko dugu umeen zaintza bermatzuz.

Ekintza horien gain, beste hainbat ekintza izango ditugu, hala nola, antzerkiak, eskulanak, abentura jolasak (altxorraren bila, orientazioa, jolas heuristikoa...). Bertan, euskara sustatzeko eta gauzatzeko, euskal herriko atal ezberdinak landuko ditugu, adibidez, euskal mitologiari buruzko antzerkiak eginez, ipuin zein istorioak kontatuz eta euskal kulturako jolasak ekiten. Era berean, kontzertuak ere gauzatzeko ditugu gure lokalean bertan, euskal musika ardatz bezala izanez. Material desberdinak ere eskainiko ditugu, adibidez: pilotak, tirolinak, jostailuak, etab. Beste atal garrantzitsu bat guraso zein umeen arteko harremana sustatzea da. Horretarako, gurasoak haurrekin batera jolasean aritu ahal izango dira txokoetan zehar, eta kasu hauetarako ekintzak ere gauzatzeko ditugu. Bizikletak alokatzeko aukera izango dute denbora tarte batez ibilbide bat egiteko, txangoak, koltxonetak, mahai jolasak... beste hainbaten artean.

Jolas libre kontuan izanda, txoko ezberdinak egongo dira eremuaren inguruan zehar sakabanatuta, txoko bakoitzean beraien nahi dutena egin dezakete, izenak dioen moduan, libreki jolasteko. Txoko bakoitza, material zein testura ezberdinez osatuta egongo da: jostailuen txokoa, jolas sinbolikorako gunea, naturan aurki ditzakegun objektu zein elementuen txokoa, dantza egiteko espazioa, koltxonetak... Beste alde batetik, ekintza programatuak egongo dira non hainbat jarduera egongo dira, aurretik esan bezala: altxorraren bila, orientazioa, jolas heuristikoa... hauek hezitzaileekin batera gauzatzeko dira beraien azalpenekin bat eginez. Aipatutako txokoetan erabiliko diren materialak, material seguruak eta bigunak izango dira. Hau da, istripu zein gertaera batean kolpe bat hartuz gero, minik ez hartzeko balioko duena edota mina erabat saihesteko.

Horrez gain, urtebetetzeak ospatzeko merendolak egingo ditugu arratsaldetan. Bertan, janari eta goxokiak jarritz. Ekintza programatuak egiteko aukera ere izango dute, baina familia eta ume bakoitzaren nahien arabera landuko dira hauek.